

UDAL ARTXIBOA LEKUZ ALDATU DUTE

Artxiboa kontsultak egiteko moduan dago orain

Arkupeetako ezker-ezkerreko atetik sartu eta han dago bulegoa, berritua. Artxiboa, lehen Molotoff irratia zen hartan.



Artxiboa txukun txukun ordenatua udaletxean.

Hernaniko artxiboa Gipuzkoako aberatsenatarikoa da historialariek diotenez. 1986an dokumentazio asko (1945 urterartekoa) Biteri kultur etxera eramán zuten, udaletxean leku egokirik ez-eta; lehengo asteen ekarri dute berriz ere bueltan.

Lehen Molotoff irratia zegoen gela eta ondokoa izango dira hemendik aurrera artxiboa. Agiri guztiak ordenatuta eta deskribatuta daude dagoeneko, ordenagailuz bilatzeko moduan. Agiri zaharrak ezezik argazkiak ere badaude; 4000 hain zuzen ere.

BULEGO BERRIA

Azken urteetan udaletxeko goiko pisuan egon da artxibatzaileen bulegoa; leku arazoak, ordea, bulego berria jartzera behartu ditu. Udaletxeko arkupe txikian (ezker-ezkerreko atean) daude orain, ate nagusitik sartu beharrik gabe.

Jendeak kontsultak egiteko aukera dauka. Mahai haundi bat eta aulkiak daude, eta 1427az geroko milaka dokumentu. Orduetgia astelehentik ostiralera 09:00etatik 13:00a artekoa da, baina, aurrera begira gehiago zabalteko asmoa dute. □

ZENBAIT DATU

ARTXIBO HISTORIKOA

(1945 artekoa)

■ 2500 dokumentu ezberdin daude artxibatuta.

■ Zaharrena 1427ko pergaminu bat da: Urumea inguruko *zilegizko* mendien aprobe-txamenduari buruzkoa.

■ Agiri zaharrek Urumea ibaiaren inguruko burdin olak aipatzen dituzte. *Real Asiento de Anclas* aingurak egiten zituztena bereziki, Europa guztian famatua izan zena.

■ Hernani herriaren ordenantzak 1512. urtean tropa frantsesak sartu zirenean desagertu ziren. 1542an Carlos Vak egin zituen berriak ehun eta gehiago ordenantzekin; horiek badaude.

■ Gerratan eta sakeotan galdu dira agiri asko; gehienak 1845ean karlistek udaletxea lehertu zutenean.

1945-ETIK HONERAKO

■ 31500 agiri daude.

■ 50 eta 60ko hamarkadetan biztanle kopurua asko igo zela nabarmentzen da agirietan. 1950ean Hernanik 8501 biztanle zituen; 1970ean 23481.

■ 1984an Orbegozo itxi eta jende askok aldegin zuen Hernanitik.

■ 1986an Lasarte eta Hernani bereizi zireneko agiri asko dago.

Musika Bandaren kontzertua gaur arkupetan

Eguerdiko ordubatean da. Lau obra joko dituzte.



Hernaniko Musika Banda udaletxeko arkupetan.

HERNANIKO Musika Bandak, Manuel Sagarna buru duela, kontzertua eskainiko du udaletxeko arkupetan. Kontzertuok udalak antolatzen ditu.

Errepertorioa erabakia

dute eta honako lau obra hauek interpretatuko ditu Bandak: *Penya el Calbot*, (J.J. Ruiz Sagarna), *La leyenda del beso* (Soutullo), *Diarios de la mañana* (Strauss) eta *Ametzak* (Bernardo Alberro). □

■ ERRUGBIA

Hernani A eta B, Iruña eta Elorrioren kontra gaur Landaren

Bigarren taldeak *1 Euskal ligarako* promozioa du, lehen taldeak, berriz, *1 Liga nazional*eko partidua.

HERNANI B-k Elorrioren kontra jokatu du 11:00etan *1 Euskal ligara* igotzeko lehen partidua. Hernani, *2. Euskal ligan*, 3. gelditu zen iaz. Ez zuen igotzeko aukerarik, baina, *1 Euskal ligan* bi taldek

bat egin dutenez, azken aurrena gelditu zenarekin (Elorrio) borrokatuko du txartel hori.

Lehen taldeak, berriz, gaur hasiko du *1 Liga nazionala*, 12:00etatik aurrera Iruñaren kontra. □



"Txuso" eta Jesus serio asko lanean, bulego berrian.



Bidaiak

HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIAK

Urbieta, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74

Faxa: 943- 33 01 74

20.120 HERNANI

DORRONSORO



OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L.L

Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18

20120 HERNANI

I. GARMENDIA (3. MAILAKO FUTBOL ENTRENATZAILEA)

“Gaur nolabaite irabazi egin beharra daukagu”

Aitortzen du ekipoa etsipen puntu batek jota dagoela; baina, bi edo hiru partidu irabaztean dena bere onera etorriko dela uste du. Partidua 17:30etan hasiko da.



Imanol Garmendia CDH Hernaniko entrenatzailea.

CDH Hernanik gaur jokatu-ko du, Zubipen, Ligako 6 jardunaldia Amorebietaren aurka. Orain artekoan, 15 puntutik 3 atera ditu, eta ez du oraindik partidurik irabazi.

■ Zer ekipo dauka aurten Hernanik?

Ekipo gaztea daukagu aurten; Esperientzia falta zaie oraindik, eta hori batzuetan antzeman egiten da.

■ Ez duzue oso hasiera fina egin?

Pretenporada ona egin dugu, baina, bagenekien hasiera zaila izango genuela. Ekipo gogorak tokatu zaizkigu (Vaskonia, Erreala, Zalla...) Gero, zorte txarra ere izan dugu: Lagun Onak-en aurka gola anulatu eta enpatatu egin genuen. Hemendik aurrera, teoriarik, gauzak errazago joan behar lukete.

■ Jokalariak ez al dute gaur presiopean jokatu?

Bai, baina, normala da hori. Etxean jokatzeko duenak beti arriskatu behar du gehiago, eta kontrarioak hori aprobetxatu lezake.

“Gure helburua da sailkapenean erdiz gora lasai ibili eta ahal bada igoerako Play Offak jokatzeko.”

■ Zer dakizue Amorebietaz?

Orain bi urte igoerako Play Offak jokatu zituen. Aurten, hala ere, ekipoa asko aldatu da, haiek ere gazteak dira gehienak. Guk baino puntu bat gehiago dute, baina, lauak kanpoan atera dituzte: hori bada zerbaite. Ondarretan daude jokatzeko ohituak eta hor abantaila izan genezake.

■ Zer eskatzen diezu Hernaniko futbolariei?

Eskatu, eskatu, ba, gaur arratsaldean Zubipera etorri eta ekipoa animatzeko: ia beti berdintsuak biltzen gara eta □

OSIÑAGA AUZOA

Harriatsuko festa egunerako dena pronto

HARRIATSUKO eskolan ibili zirenek egun pasa eder-rra egingo dute datorren ostegunean. Aurten hamaikagarren urtea dute, eta piskanaka arrakasta handia lortu du jaiak. Bazkaritarako txartela hartu nahi duenak hauxe du telefonoa: 943-555830. □



LAGUNTZAILE TXARTELA EROSI DEZAGUN DENON ARTEAN

“50 urtetik gorako gizon bat naiz, eta gustoz leitzen det orritxo au, Kronika alegiya. Ustet alako lana egiten duan gazte jendeak merezi dula gure aldetik laguntzea. Andrea, alaba eta iruroi, beñepin, ez digu miñik eman, denen artean mila duro jarri eta Laguntzaile-txartela deritzana erosteak. Zorionak Kronika ateratzen dezuten gazteoi, earki ari zeate lanean ta!”

Kronikaren forofo bat.

ZUHAIZTI AKADEMIA

- Hizkuntzak.
- Laguntza klaseak.
- Informatika haur eta helduentzat.
- Klaseak euskaraz eta erdaraz.

Larramendi 9, Tel. 943 33 36 03
20120 HERNANI

■ HITZ BITAN

✓ PELOTA

Iñaki Esnalek eta Laskurainek 22-14 irabazi zieten Zabala eta Errastiri, atzo Gipuzkoako openeko partidua. Atzo Loiolan jokatuakoa hiru dira jarraian irabazi dituzten partiduak, alerik galdu gabe.

Hernaniko Kronika esku pelota txapelketa ere martxan da. Lehengo asteburuan lau partidu jokatu ziren eta, atzo berriz, hiru. Gaur ere bada partidu bat 12:00etan Tilosetan: Angel eta Iñakik Iturbe eta Tuturen kontra jokatu dute.

Orain arteko emaitzak:

1 Bikotea		2 Bikotea	
Xabier-Gorka	22	Angel-Iñaki	12
Iturbe-Tutu	22	Magi-Txili	11
Axier-Encko	22	Itxaro-Mauri	20
Saltzo-Tani	22	Juan Mari-Leitza	14
Joxe-Aritz	22	Aitzol-Inmar	13
Ion-Dabid	22	Iker-Josu	14
Xabier-Gorka	22	Magi-Txili	12

✓ ‘AURRERA’ ELKARTEA

Aurrera elkarteak Gasteizera joango dira gaur egun oso-rako. Astebururo egiten dute irteeraren bat: festak direla, ekitaldiren bat dela... aldiro leku ezberdinerara. Lehengo asteburuan Urrietako festetan izan ziren.

✓ JUBILATUAK

Hastekoak dira karta joku ezberdinetako lehiaketak. Astelehenerdik aurrera Jubilatuen Etxetik pasa izena eman nahi dutenak. Bestalde, gabonetako loteria ere hasi dira banatzen egoitzan bertan.

✓ MUSIKA ESKOLA

Udal musika eskola ari da poliki poliki eskaintza guztiak jendez osatzen. Oraindik, ordea, bada aukera tronpeta edo txalaparta jotzen ikasi nahi duen jendearantzako. Bakoitzean bi leku daude betetzeko. Izena emateko, Musika Eskolatik bertatik pasa, Atzietatik. □

AGENDA

◆ **ERAKUSKETAK**
Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udaletxean bertan,
12:00-14:00

Miren Maite
billabonarraren kuadroak
ikusgai daude
Txema tabernan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
- ▶ Gauzez: Gorospe
Andoain. Rikardo Arregi, 12
☎ 943 592415



SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

AUKERAKO AUTOAK

Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Opel Astra 'Caravan' Diesel	NA-AJ
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Renault Expres Diesel	SS-AS
Suzuki 'Todo terreno'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...